

# GERO ARTE AMA

Egunero gauak eguna estaltzean ohera joaten naiz. Noski, beste pertsona asko bezala. Txikia nintzenetik amak ohera goiz eramaten ninduen eta amets gaiztoak ez edukitzeko, ipuin bat kontatzen zidan. Baina ez edonolako ipuina. Ez. Ipuin horietan ez ziren printzesa, printze, sorgin gaizto edo otso maltzurren istorioa kontatzen. Nire ama betidanik izan da oso errealista eta beti errealitatea ikusarazi dit. Ama txikia zenean, abandonatu zuten eta une hartatik aurrera bere bizitza ez da onera joan, edo berak dioen bezala ez du amestutako amaiera zoriotsua izan, ezta une batez dastatu ere. Normala denez, berak ez du hori nahi niretzat eta horregatik bere ipuinak ez ziren izaten fantasiakoak; gehienez, amaiera zoriotsu bat izaten zuten baina hori, egun on bat zuenean izaten zen eta egun haiek oso gutxi ziren. Hazten joan nintzen heinean ipuinen garrantziaz eta esanahiaz ohartzen joan nintzen. Ez nituen ipuin horiek atsegin, ezta orain ere, baina oso lagungarri eta baliagarriak izan zaizkit bizi izan ditudan hamasei urte hauetan.

Hauetako gau batean, hamalau urte edo izango nituen, ezin nuen loak hartu, beraz, pentsatzen jarri nintzen, baina pentsamenduak oztopatzen zizkidaten zarata batzuk entzun nituen. Momentu batez burua txuri utzi eta zarata hura zer zen entzuten gelditu nintzen. Pausoak ziren. Baina asko zeuden eta ahots batzuk ere entzuten ziren. Beraz, isil isilik altxatu nintzen ohetik eta atea pixka bat zabaldu nuen. Egongelatik zetorren iskanbila hura, eta egongela nire gela parean dagoenez, den dena ikusi nuen. Korrika itxi nuen atea eta ohean sartu nintzen. Izaren azpian ezkutatu eta hori guztia ametsa zela neure buruari sinestarazten saiatu nintzen, baina, nik banekien ikusi nuena ez zela ametsa.

Egunak joan, egunak etorri, gauero istorio bera. Horrela igaro nituen bost hilabete, poliziarengana joatea erabaki nuen arte. Ama ez da izan inoiz pertsona gaiztoa, alderantziz, bizitza honetan egin duen guztia onerako izan da baina hau gehiegizkoa zen. Bere ipuinetan hau guztiaren kontrakoa kontatzen zidan; beraz, benetan begiak zabaldu nituenean, ohartu nintzen zertan sartua zegoen ama, eta salatzea erabaki nuen. Ama bere onetik aterata baitzegoen.

—Egun on.

—Bai, egun on neskato. Zertan zabilta zu hemen? —esan zidan emakumeak alai—. Ezagutzen nuen Doris zen. Nik sei urte nituenean etorri zen Brasiletik eta gure bizilaguna izan zen nik hamar urte bete nituen arte, Patxi okinarekin ezkondu eta haren etxera bizitzera joan baitzen.

—Zera... Doris, salaketa bat jartzera nator.

—Salaketa bat! Ze jazo zaizu, neskato! -salaketa hitza aipatu nuenean, aulkitik salto egin zuen eta urduri jartzen hasi zen. —Bai, oraintxe pasako zaitut agente batekin, baina bost minututxo itxaron beharko dituzu, laztana.

-Ez da ezer pasatzen, aulkian eserita itxarongo dut.

Doris oso emakume atsegina izan da beti, egia esan behar badut, bigarren ama bat bezala da niretzat. Gure eraikin berdinean bizi zenean, bere etxera joaten nintzen egunero bazkaltzera eta oso une zoriotsuak ditut bere alboan. Azken urte hauetan faltan bota izan dut. Noizbehinka bere etxera gonbidatzen nau bazkaltzera baina lehen solairu bat jaitsi eta hor izaten nuen prest nire penak entzuteko txokolate goxo batekin.

—Laztana pasa zaitezke agentearengana, jarraitu korridorea eta bigarren atea eskuinera da.

—Mila esker, Doris. —Urduri nengoen. Oso urduri. Kirioak dantzan nituen ninduten une hartan, baina ate hura zabaldu baino lehen, egin behar nuena zuzenena zela esan nion neure buruari, eta horrek zertxobait lasaitu ninduen.

Atea zabaldu eta mutil gazte baten aurrean aurkitu nuen.

—Egun on.

—Bai egun on!

—Esan dit Dorisek salaketa bat jartzera etorri zarela. Lasai egon zaitez, hemen zauden bitartean inork ezin dizu ezer egin.

—Bai, beno... ama salatza nator. —Listo, esanda zegoen jada ezin nuen atzera egin eta hasitakoa amaitu beharra nuen!- Gauero ...

—Lasai, ziur zaude egin behar duzunaz, ezta? Salaketa egitea serioa baita.

—Bai, bai, eta egia esan behar dut. Esatera nindoan bezala...—Oso urduri nengoen eta ahotsak huts egiten zidan.—Gaua iristean drogak saltzen ditu. Egunero duela bost hilabetetatik, ordu ia berean, hamabiak eta laurden aldera.

—Esaten ari zarena egia al da?

—Bai guztiz egia, koltxoi barruan edukitzen du gordea, eta lehengo egunean portalera jaisten ari nintzela bizilagunak hizketan entzun nituen. Esaten zutenez, jende gehiegi ibiltzen da gaez, eraikinean... beraz bizilagunei galde diezaiokezue. Ondo informatua etorri naiz salatzen ari naizen pertsona nire ama baita, drogak koltxoi barruan gordetzen ditu eta jendea etorri aurretik berak ere, zer edo zer hartzen du edo e..erre ... ez dakit.

—Ongi da. Eta zuk minik jaso al duzu... edo bortxaketarik.

—Ez, ez. Niri ez didate ezer egin. Lagundu iezaiozue nire amari, burua guztiz joanda baitauka azkenaldi honetan... jada ez da lanera joaten eta ohean geratzen da...—Une hartan nire malkoek, baimenik gabe, nire begiei agur esan eta aurpegitik behera ihes egin zuten.

Bi ordu igaro nituen hasierako aulkietan eserita. Doris nire alboan egon zen. Dirudienez, bizilagunei galdeketa bat egitera joan ziren. Laurak eta hogeita bi ziren horma aurreko erlojuan ate bat zabaldu eta nire izena entzun nuenean.

-Mireia, zatoz.

Oraingo honetan gela handiago bat zen hura.

-Jada egon dira zure etxean eta... egia zen, zuk esan bezala ama ohean zegoen eta koltxoi barruan zeukan gordea merkantzia. Leku hori arriskutsua da zuretzat, beraz, bi ordu dituzu gauza batzuk hartu eta... Beno, agente batek lagunduko dizu...—gaineratu zuen, ikusi zuenean, negarrez hasi nintzela. Ordura arte nire etxea izan zen hura, hemendik aurrera oroitzen bat besterik ez zen izango.

Agente batek etxera eramane ninduen eta noski nirekin sartu zen etxean. Lasai ireki nuen atea inongo presarik gabe. Seguru aski, hura izango baitzen zapaltzen nuen azken aldia. Egongelara iritsi eta telebista parean zegoen armairuxora hurbildu nintzen. Makurtu eta ireki egin nuen. Agentearen begiradak sumatzen nituen sorbalda gainetik. Normala zenez, jakin mina izango zuen zer ateratzen nuen handik jakiteko.

Album berde bat atera nuen eta baita metalezko kutxa bat ere. Kutxak marrazki ia ezabatu batzuk zituen, baina barruan nire bizitzako une zoriontsuenak gordetzen zituen, baita amarenak ere.

Logelara sartu eta armairua zabaldu nuen. Bertatik maleta handi bat eta beste txikiago bat atera nituen, zabaldu eta gauzaz betetzen hasi nintzen. Arropa, bai negukoa eta bai udakoa, zapatak, etxeko txapinak, nezeserra, txamarrak, liburu batzuk (gustukoen nituenak), portatila (amak oparitu zidak hamalagarren urtebetetzean, urtebetetz egon zen dirua aurrezten eta, beraz, oso ondo zaintzen nuen, balio sentimental handia baitzuen), mahai gainean nituen zenbait oroigarri, eskutitz batzuk, barruko arropa..... eta aurkitzen nuen guztia. Dena ondo-ondo antolatu nuenez, hori guztia, maleta handian sartu zitzaidan. Lehenago esan bezala, maleta oso handia zen. Hura ixtean, lurretik altxatu eta amaren logelarentz hurbildu nintzen. Behin barruan nengoela, bere armairua ireki eta jertse batzuk hartu nizkion, baita takoidun zapata batzuk, argazki gehiago... bere bitxiontzia hartu eta zabaldu egin nuen. Noski, nola ez, ez zegoen ezer. Kaka! Eta une hartan, logela horretan, barruan nuen min guztia atera nuen, begiak lainotu egin zitzaizkidan eta negar malkoak nire begietatik ateratzen hasi ziren. Bitxiontzia lurrera bota nuen. Kutxa guztiz hautsita geratu zen. Orduan, argazki bat ikusi nuen bitxiontzia zenaren hondarretan. Argazki zahar bat zen eta nahiko hondatua zegoen baina aurpegiak ondo bereizten ziren. Ez nuen argazkian irteten ziren pertsona bat ere ezagutzen, amaren aurpegia

ezagutu nuen arte.

Eta orduan ohartu nintzen argazki hura, bere familiarena zela. Une alai bat ematen zuen, baina nork daki, askotan dena gezurra izan daiteke, ikusten duguna ez da benetan gertatzen ari dena, eta ezta egia ere. Baina argazki horretan, benetan gertatzen ari zena ikusten zen, edo hori zirudien. Bi ume txiki, belarretan jolasean zebiltzan eta beraien atzean emakume eta gizon bat zeuden haurrei behatuz aurpegian irribarre batekin. Haurretako bat ama zen baina bestea, nor izango ote zen bestea? Eta atzeko bi pertsona haiek? Amaren familia ziur aski. Momentu hartan, agentea sartu zen eta joan behar genuela esan zidan. Beraz, argazkia poltsikoan sartu eta maleta txikia itxi nuen, etxeko giltzak hartu eta azkeneko aldiz etxeko atetik irten nintzen. Han atzean utzi nituen txikitan bizitako momentu eder eta alai haiek eta benetako mundura irten nintzen neu bakarrik inoren babesik gabe.

Komisariara iritsi orduko, nire izena esan zuten.

—Mireia, zatoz mesedez. —Gelara sartu eta hitz egiten hasi zen gizon bat—: Badakigu egoera hau oso gogorra dela zuretzat, baina orain, beste leku batera eraman behar zaitugu. Hemezortzi urte bete arte ezin dituzula erabakiak zeuk hartu. Beraz, familia batera eramango zaitugu.

—Familia batera?

—Bai, jende zintzoa da eta hemezortzi urte bete arte haien kargu egongo zara.

—Non bizi dira?

—Hemendik bost bat ordutara dagoen herri txiki batean bizi dira. Familia on bat da, etorkizun on bat emango dizute.

Momentu hartan ez nuen ezer esan, hitzik gabe geratu nintzen. Ez nuen etxea bakarrik utzi behar, ez. Nire ama, lagunak eta herria..., dena utzi behar nuen. Baina zein beste irtenbide nuen?

Taxi bat iritsi zen komisariara. Maletak sartu eta Dorisi begiratu nion. Negarrez zegoen.

—Laztana, ez ezazu ahaztu hemen beti etxe bat izango duzula, nahi duzunerako hemen duzu nire telefona, ez ezazu beldurrik izan. Dena ondo aterako da, ikusiko duzu. —Hori esan eta besarkada estu bat eman zidan. Negarrez bukatu nuen nik ere, besarkada hori zen behar nuen guztia beldurrik gabe joateko, edo hori uste nuen nik.

Taxian sartu eta kaskoak jarri nituen bidaia laburragoa egiteko, baina galderak besterik ez nituen buruan. Nolakoa izango zen “familia” berria? Zer gertatuko zitzaidan niri? Eta nortzuk ziren argazkiko pertsona haiek? Amak kontatutako istorioa egia izango al zen? Benetan abandonatu al zuten? Eta oraindik bizirik jarraituko ote zuten? Edo non zeuden? Milaka galdera nituen, baina inor ere ez haiek erantzuteko. Eta galdera garrantzitsuena, zer gertatuko zitzaion amari?

Nire bizitza ez da ipuinetakoa izan, baina beti izan naiz zoriontsu, eta hori garrantzitsua dela uste dut. Amaren istorio haiek begiak ireki zizkidaten eta sei urte nituenean, erabaki nuen bizitza honetan zerbait garrantzitsua egin nahi nuela: Irakeko gerra gelditu, mundura bakea ekarri, behartsuak direnei aberatsen dirua eman; pobrezia gelditu, baita hilketak ere. Baina badago gauza bat, ama, inoiz erakutsi ez zenidana, nola egin hori guztia. Horretarako politikari egin beharko nintzateke? Baina zertarako? Denak berdina dira, gauza asko agintzen dituzte, baina dirua bakarrik axola zaie. Eta hori jendeak badaki, beraz, zergatik sinetsiko didate niri, horrenbeste gezurren ondoren? Eta zer beste bide hauta dezaket? Ama, zure laguntza behar dut. Non zaude? Zuk ere bizkarra eman behar didazu, guk munduko bidegabekeria guztiekin egiten dugun bezala?

Eta une horretan ohartu naiz, zu ez zinela gehiago nire alboan egongo. Taxira igo aurretik agenteak esan zidana ez nuen entzun nahi, baina orain, orain ohartu naiz. Zuk nahi izan arren ezingo duzu nire alboan egon. Hilda baitzaude. Eta hala jarraituko duzu. Zuk niri beti kontatzen zenizkidan ipuinak; oraingo honetan, ordea, nire txanda zen, eta horregatik, idatzi dizut eskutitz hau. Zauden lekuan zaudela iritsiko den esperantzarekin, gero arte esan nahi nizun eta. Bizitza zoriontsua izan dut zure alboan eta orain gure bideei banantzeko ordua iritsi zaie. Beraz, gero arte ama, gero arte.

Mireia.

Azkenean eskutitza itxi eta taxitik irteteko prest nengoela erabaki dut. Ez dakit zein familia egongo den atearen beste aldean baina aukera bat emango diot nire bizitza berriari. Eta nire ametsak errealitate bihurtzen saiatuko naiz. Eta horrela egingo dut.

*Hakker*